



## KULTURA SAILA

Kultura, Gazteria eta  
Kirol Sailordetza

*Kultura Ondarearen Zuzendaritza*

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Cultura,  
Juventud y Deportes

*Dirección de Patrimonio Cultural*

## BILERA AKTA

**Bileraren arrazoia**

Euskadiko irakurketa publikoko sarearen 2007ko balantzea

**Biltzeko tokia**

Eusko Jaurlaritzako Delegaritza (Bilbo) / Eusko Jaurlaritzako Delegaritza (Donostia-San Sebastián) / Lakua (Vitoria-Gasteiz)

**Eguna**

2008/01/29, 30, 31

**Parte hartu duten liburutegiak**

Abadiño	Bergara
Amurrio	Berrobi, Bidegoian
Arrigorriaga	Deba
Aulesti	Errenteria
Basauri	Hernani
Bermeo	Hondarribia
Busturia	Ibarra
Derio	Irun
Durango	Legorreta
Eibar	Lezo
Elgoibar	Oiartzun
Elorrio	Oñati
Erandio	Pasaia
Ermua	Tolosa
Etxebarri	Usurbil
Etxebarria	Zaldibia
Gernika	Zarautz
Getxo	Zumaia
Gorliz	Zumarraga
Iurreta	
Kuartango	Alegria
Loiu	Amurrio
Llodio	Aramaio
Markina-Xemein	Aretxabaleta
Mungia	Artziniega
Muskiz	Berriz
Portugalete	Gasteiz
Zamudio	Iruña de Oca
Zeberio	Legazpi
	Leioa
Aiztondo	Orduña

Andoain Arrasate Azkoitia Belauntza	Otxandio San Millán Urkabuztaitz
--	--

## Ekintzak:

Liburutegi Zerbitzuko lan-taldea eta zereginak aurkezten dira.

### 1. Katalogazio alorreko balantzea eta 2008rako proiektuen aurkezpena:

- Eskuliburuuen egoera. 2008rako aurreikusitako eskuliburuak: analitikena, estatistikena, maileguena osatzea eta autoritateena.
- 2007ko katalogazio-datuen aurkezpena.
- Xahutzea: 2007ko datuen aurkezpena.
- Aldizkakoak: 2007an egindako lana aurkezten da. Aldizkakoen Lan-Talde bat sortu da 5 liburutegik osatua. Eskuliburuak balioztatu eta Absysneten zenbait aldageta egin dira. Aldizkariak katalogatzeko lanean aurrera jarraitu da, baita haien gestioa aldizkakoen modulutik egitekoan ere. Lan honekin jarraitzea espero da, hasierako Lan-Taldean parte hartzen duten liburutegiekin. 2009rako interesaturik dauden liburutegietara zabal daiteke.
- Antzinako funtsa. 2007an zehar inkesta bat luzatu zaie udal liburutegiei haien antzinako funtsak ezagutzeko eta katalogazioa planifikatu ahal izateko. Gasteizko Seminarioko eta Laguardiako funtsak katalogatuko dira. Harremanetan gaude Bidebarrietarekin.
- Lege gordailuko soinu grabazioak katalogatzeko proiektua aurkezten da. Proiektua abian jarri ondoren, 2009rako gai honetan interesa luketen liburutegiekin Lan-Talde bat sortzea proposatzen da.

### 2. Liburutegien arteko mailegua:

- 2007an abian jarritako liburutegien arteko mailegu proiektuaren aurkezpena egiten da. 28 liburutegik hartu dute parte proiektuan. Liburutegien arteko mailegua gauzatzeko aldageta batzuk egin dira Absysneten, araudi bat ezarri da eta Liburutegi Zerbitzuak finantzatutako garraio sistema bat antolatu da.
- 2008an, proiektuaren balantzea egin ondoren eta jarraitu beharreko prozedura zehaztuz gero, zerbitzu hau parte hartu nahi duten liburutegi guztiei zabaltzeko asmoa dago.

### 3. Autoritateak:

- 2007ari buruzko datuen aurkezpena.
- 2008rako aurreikusitako jarduerak. Lehentasuna emango zaio euskal erakundeak osatzeari.

### 4. Argitalpenak:

- 2007an Euskadiko Irakurketa Publikoaren Mapa eta Musikako liburuena, partituren eta soinu-grabazioen sailkapen sistematikoa argitaratu dira.
- 2008an Katalogazio arauak argitaratuko dira.

#### 5. Estatistikak:

- 2008rako EUSTATen plangintzan sartu gara eta estatistika ofiziala bihurtu da.
- Ministerioa eta INErekin lanean ari gara 2008ri buruzko datuen bilketa, 2009an egingo dena, bakarria izan dadin.
- Eguneratu egin nahi dira urteko estatistika txostenak.

#### 6. Beste batzuk:

- Euskadiko Irakurketa Publikoaren Mapa: Liburutegien Aholku Batzordea sortuko duen dekretua lantzen ari gara jakinarazten da. Batzordeari egokituko zaio Maparen hurrengo edizioaren edukia definitzea.
- Bilgunea. Egoeraren balantzea egiten da.
- Liburutegi-zerbitzuen plangintza. Jakinarazten da Oihane Oliveri dela gai hauen inguruan txostenak egiteko arduraduna.
- Dirulaguntzak. Dirulaguntzen tramitazioan arituko diren pertsonak aurkezten dira. Josebe Alonsok teknologia berrien dirulaguntza hartuko du bere gain, Mikel Arenazak funtsei dagokiena eta Oihane Oliverik irakurzaletasunarena.
- ONA txartela aurkezten da. Txartel honek hiritarraren lizenpe ordezkatzeko du.

#### Partehartzaileen iruzkinak:

- **Liburutegien ataria.** Liburutegientzat atari bat sortzeko proiektuaren egoera. OMA dago geratuta eta aurrera jotzea hala ez OMAren esku dago. Erantzunaren zain gaude.
- **Sareari buruzko liburuxkak.** Sareari buruzko informazioa ematen duten liburuxkak berriz ere argitaratu daitezela eskatzen da. Egitekotan, haur eta/edo gazteentzat erakargarriago eta nagusientzat ulergarriago egingo dituen diseinu bat erabiltzea proposatzen da. Zerbitzuaren erantzuna da: liburuxkak 2008an berriz ere argitaratuko dira. Testua eta diseinua berrikusiko dira eta informazioaren itxura hobetzea aurreikusten da.
- **Katalogazioa eta katalogazio-baimenak.** Hiru bileretan katalogazio akatsen eta katalogazio-baimenen inguruko eztabaida egon da. Alde batetik, katalogatzeko baimen gehiago emango diren hala ez galdetu da. Gai honen inguruan jarrera ezberdinak daude. Liburutegi batzuk dudan jartzen dituzte baimen horiek emateko erabilitako irizpideak, baita Eusko Jaurlaritzaren ahalmena haiek emateko edo ukatzeko. Katalogazio prozeduraren koordinazio eta gainbegiraketa bat egon behar duela onartzen dute, baina liburutegi horien ustetan, horrek ez du esan nahi Eusko Jaurlaritzak zeinek kataloga dezakeen erabakitzerik duenik. Beste liburutegi batzuk, berriz, katalogoan azaltzen jarraitzen diren akatsak ikusita, eta akats horiek guztien lanean eragina dutelarik, uste dute behin eta berriro katalogazioak gaizki egiten dituzten liburutegiei baimenak kendu behar litzaizkiekeela. Bestalde, eskatzen da Zerbitzuak berriz ere

haur eta gazteen katalogazio taldeak hartutako erabakiak eta akats ohikoenen zerrenda bidal ditzala. Liburutegietatik egindako migrazioen erregistroak, autoritateak etab. gainbegiratzen jarraitu beharra dagoen bitartean, ez dira katalogazio-baimen gehiago emango. Katalogazioari buruzko Lan-Talde baten sorrera proposatzen da, alor honi buruzko erabakiak adostuko dituen.

- **Autoritateak:** Liburutegiek ikusten dute beraiek sortutako autoritateak ez direla balioztatzen. Zerbitzuak onartzen du ez direla balioztatzen sortzen diren adina. Kontuan hartuko da esandakoa eta AUBIn egin beharreko lanean alor honetako lana indartuko da.
- **Informazio gehiagoren beharra:** Liburutegiek Zerbitzuarengandik informazio gehiago jaso nahi dutela nabarmendu da, abian dauden proiektuei eta egiten diren lanei buruzkoa. LAMaren proiektua aurkeztearen ondorioz, liburutegi batzuk kexu dira bileran bertan jaso dutelako lehen informazioa edo elkarrizketa informaletan eduki dutela horren berri. Absysnetek eskaintzen duen mezularitza zerbitzua sareko liburutegien arteko komunikazioa bermatzeko erabiltzea proposatzen da, liburutegiei “guztiei erantzun” funtzioa ahalbidetuz. Sareari informazioa zabaltzeko beharrendaren inguruan, eta liburutegiak proiektuen partehartzaile egiteko lan-taldearen erabilgarritasunaren inguruan, esaten da Zerbitzuari dagokiola lan-taldeak proposatzea eta interesa dutenei eskaintzea. Zerbitzuak gogoan hartuko du informazio gehiago jasotzeko eskaera eta sareko kideekin komunikazioa hobetzeko konpromisoa hartzen du. Onartzen du batzuetan ez dela informaziorik igorri, batez ere proiektuak aurkeztu aurretik hauek abian egon arte itxaron delako. Absysneti dagokionean, mezularitza funtzioa programak baldintzatzen du, administratzaile profilarik loturik bai dago. Behin baino gehiagotan enpresari hobekuntza moduan eskatu zaio, baina oraingoz ez da posible izan.
- **Liburutegietako langileak.** Liburutegien ustetan, Eusko Jaurlaritzak presio handiagoa egin beharko luke udal liburutegietako langileen egoera hobetze arren. Gai honen inguruan galdetzen da ea derrigorrezkoa izango den Udaletxe eta Eusko Jaurlaritzaren arteko konbenioa, liburutegiek eman beharreko zerbitzuak finkatuko dituen. Irakurketa Mapak kasu batzuetan langileen benetako egoera islatzen ez duten momentuko datuak jasotzen dituela jakinarazten da. Azpimarratzen da Udalei helarazi behar zaiela zerbitzuen eta erabiltzaileen gehitzea ez dela bat etorri pertsonalaren gehitzearekin. Etorkizunari begira, beharrezkoa ikusten da gutxieneko zerbitzuez gain hauek eskaintzeko beharrezko baliabideak jasotzea.
- **Sarean ez dauden liburutegiak.** Zer pasatzen da Donostia, Bilbo eta Santurtziko liburutegiekin?
- **Dirulaguntzak.** Funtsei dagokien dirulaguntzari buruz jakinarazten da aurrean ez dagoela Ministerioaren ekarpenik. Liburutegiek eskatzen dute, ahal den neurrian dirulaguntzen tramitazioa azkartzea, haiek jasoko duten diru kopurua ahal bezain laster ezagutzeko. Teknologia berrien dirulaguntzak jarraipena izango duen hala ez galdetzen da. Tramitazioari dagokionean, ahal dugun guziaz ari gera egiten prozesua azkartzeko. Teknologia berrien dirulaguntzari dagokionez, oraindik goiz da 2009an

jarraipena izango duen hala ez jakiteko. Edozein modutara, jakin bezain pronto abisatuko zaie liburutegiei.

- **Estatistikak.** Datuak lortzeko jarraitu beharreko metodologia argitu dadila eskatzen da. Aurten, datuak jasotzeko orriekin batera estatistika esku-liburu bat bidaliko da, eskatutako informazioa lortzeko jarraitu beharreko metodologia azalduko duena. Liburutegiek estatistikek instituzio-erabiltzaileen mugimenduak ez jasotzea gaitzesten dute.
- **Aldizkakoan mailegua.** Aldizkakoak nola mailegatu galdetzen dute liburutegiek. Aldizkakoan Lan-Taldearen eginkizunetako bat aldizkakoan mailegu-politika zehaztea izan da, hain zuzen ere. Bi aukera daude mailegua egiteko: katalogazio modulutik edo aldizkakoan modulutik. Gai honen inguruan, jakinarazten da martxoan aldizkakoan katalogazioko eskuliburua euskaraz eta gaztelaniaz ezagutaraziko dela.
- **Prestakuntza.** Prestakuntzaren inguruan hainbat eskaera egin dira. Alde batetik, aldizkakoak kudeatzeko eta katalogazio kurtsoak jaso ahal izatea eskatzen da, eguneratzeko eta katalogazio-baimenak eduki nahi dituztenentzat. Beste alde batetik, prestakuntza beharrak eta interesa duten pertsonak zeintzuk diren ezagutzeko inkesta bat egitea proposatzen da. Zerbitzuak jakinarazten du antolatutako prestakuntzak liburutegiengandik jasotako duda eta kontsultak dituela oinarri. Donostiako Kultur Patronatu ohiak urtero antolatzen duen ikastaroan kurtsoen inguruan egindako iradokizunak ere kontuan hartzen dira. Aurten sareko lana hobetzeko eta liburutegi-kudeaketarako tresnak ahal bezain hobekien erabiltzea ahalbidetuko duen prestakuntza bat antolatu da.
- **Absysneten erorketak.** Liburutegiak kexu dira Absysnetek, Gabon inguruan eta batez ere asteburutan, izan dituen erorketengatik eta ez dagoelako kasu horiei aurre egingo dien laguntza-zerbitzurik. Abenduko erorketak “ohiz kanpokoak” izan dira eta posta elektronikoko bat bidali da Eusko Jaurlaritzako sistema-erantzuleak ohartarazteko.
- **Bilgunea.** On-line jarriko ahal da? Ezin da, ez baitago liburutegiak kudeatzeko programa batek kudeatuta. Datu base estatikoa da.
- **Oinarrizko euskarria.** Ezin ahal da lehenago jaso? Oinarrizko euskarriaren harrerako prozedura Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak zehazten du eta dirulaguntza jaso duten argitaletxeen sorta osoak baizik ezin dira jaso.
- **Irakurri.** Nola egin da 2007ko balorazioa eta zer egingo da 2008an? 2007ko ekintzak oraindik baloratzen ari dira. 2008an liburutegi-zerbitzuak sustatzeko kanpaina bat antolatuko da, etorkinei zuzendutakoa.
- **IV. Liburutegi Publikoen Nazio Kongresua.** Iraileko 24, 25 eta 26an ospatuko da kongresua. Liburutegi Zerbitzuak Batzorde Antolatzailan parte hartzen du. Kongresuaren gaia da: Liburutegi askotarikoak.